


liburutegia

7

123

ATV

18873



LEZO'KO GURUTZE DEUNA.



Lezo'ko Kristo.

NIHIL OBSTAT

Dr. Ignatius Lasquibar.

Victoriæ, 30 Julii 1917

IMPRIMATUR

† Leopoldus, *Episcopus Victoriensis.*

Por mandado de S. S. Ilmo. el Obispo, mi Señor

Dr. Justo de Echeguren

Secretario.

IMPRIMATUR

Ex nostro Recessu Pasionis die 31 Julii 1917.

Gabriel a S. Corde Jesu

Præpos. Prov. C. P.

M- 8587

R- 36243

ATV

18.873

Lezo'ko

Gurutze Deunaren

EDESTI TA BERRI LABURRAK

ETA

BEDERATZIURRENA.

Sorkunde Erruge'tar


Abba Makari Pasionistak idatzia.



Egillearena da.

Tolosa'n: E. Lopez'enean

1918.



LEZO'KO GURUTZE DEUNA



Gurutze Santuaren txadona ta Lezo'ko zelaya.

ITZ-AURREA.

EUZKELDUN irakurle maitea: idazti (liburu) txiki au eskeintzen dizuna zure anai maite bat da, bera ere zu bezela euzkelduna dalako. Alabaña ta euzkelduna ba-naiz ere oraindik iñoiz ikusigabe neukan Lezo'ko gurutze deuna. Ba-nuen ordea aspalditik oso gogo aundi bat euzkeldunak ain oneraspen aundia dien Lezo'ko gurutze deunaren aurrean ni ere egunen batean belaunikatzeko.

1917'garren urtean, eta Otsaillaren 16'garren egunean, oso eguzki ederra zegon arratsalde ba-
Lezo'ko Kristo—1.

tean izan nuan azkenean Lezo ikusteko zoriona. ¡Ura poz eta atsegiña, nere irakurle maitea, gurutze onetsiaren (bedeinkatuaren) aurrean nere bizitzan lenengo aldiz belaunikatu nitzanean! Tarte labur' batean nere biotz euzkeldunaren siñismen guztiz gurtu (adoratu) nuan gurutze deuna, azkenean bere oñetan muñ egiten niola.

Gero txaugela (sakristiya) ikusten nebillela arkitu nuan mai baten gañean Lezo'ko gurutze deuna'ren *Kondaira Laburra*; ordea erderaz idatzita.

Galdetu nion Eliza erakusten zidanari ez ote zuen idazti (liburu) ura euzkeraz egiña; ta jene biotz euzkeldunaren oñaze ta atsekabe garratza oraindik euzkeraz etzegola, erantzuten zidala aditu nionean! Egiz lotsez beteta gelditu nitzan, euzkeldunak ainbeste maitatzen zuan Lezo'ko gurutze deunaren Edestia erderaz egiña zegola ikusi nuanean; eta bitartean gurutze ori ikustera urtero joaten dira ainbeste euzkeldunen artean, ez dala oraindik iñor ere agertu edesti ori gure euzkera eder maitean ipintzeko asmoa bere burura iñoiz etorri zayonik.

¡Baña zorioneko lotsa orduan artu nuana! lots onek laister berotu ta pil-pil egiñaz ipiñi zidalako nere zañetako euzkeldun odola, ta zorioneko ordu artan bertan gurutze onetsiak (bedeinkatuak) ekarri zidalako nere burura, orain


eskeintzen dizutedan idazti (liburu) txiki au euzkeraz ipintzeko asmoa. Irakurri zazu bada, euzkeldun maitea, idazti au, eta bertan arkituko dituzu Lezo'ko gurutze deunaren eta an gertatzen diran arrigarrizko gauzen berri labur batzuek.

Lezo'ko Elizatxoa ikustera urtero dijoazen euzkeldunen artean noski arkituko dira asko ango gurutze deunaren berri batzuek naiko lituztekenak; baña gogo au ain ona ta bidezkoa izanarren, geyenetan bete gabe gelditzen zaye euzkeldunai; alde batetik orain arte euzkeraz idatzita (eskribituta) ezer ez dagolako, ta gero berriz erderaz dagona ere oso gutxi dalako. Orrelako euzkeldunai ain bidezko gogo ori betetzeko asmoz idazten det bada orain, gure euzkerazko izkuntz eder eta maitagarrian Lezo'ko gurutze deunaren Edesti txiki ta labur au.

Gañera Lezo'ko gurutzearen berriak zabaltzeko, ta beraren edesti txiki au egiteko lana oso pozik eta atsegin aundiz artzen det, lan onek orrela bidea ematen didalako, lekaide (praile) Pasionista bezela detan bearrik edo egin-biderik aundiena betetzeko; bada lekaide Pasionistak, beste lekaideak egin oi dituzten iru eskañitzaz (botoaz) gañera, egiten dute beste laugarren eskañitz berzei bat, Jesukristo gurutz-iltzatuaren oneraspenaren alegin guztiz kristauen biotzetan zabaldu eta ezartzeko. Orregatik, Pasionistak Belgun-

dea (Misioa) ematera dijoazenean, beti berekin daramate Jesukristo gurutziltzatua Belgundeko eren lagun on bezela, ta Belgundia ematen duten Elizako toki agiri batean txuti-txutik ipintzen dute Jesukristo gurutziltzetuaren irudi errukarria kristau guztien begien aurrean, belgundari batek Jesukristo gurutziltzetuaz eta berak gugatik eraman zituan beste gañerako neke ta oñazeaz egunero itz egiten diela. Lekaide Pasionisten belgunde oetatik, zenbat ondasun ateratzen dituzten kristaubak beren animentzat gauz ondo jakiña da Pasionistak belgundeak ematean dituzten erri ta toki aetan.

Ba-dakizu bada orain, irakurle maitea, zergatik artu detan *Edesti Labor* au euzkeraz ipintzeko lana; ikusi dezun bezela, lan ontan nere asmo guztia da, bakar-bakarrik, nere euzkeldun maiteai Lezo'ko gurutze deunaren berri ta ezaguera ematea, ta ezaguera ta berri onen bitartez berriz, kurutze-orrenganako zaletasuna ta oneraspena egunetik egunera geitzea nere anai maite euzkeldunen artean.



Lezo'ko Gurutze deunaren aldarea.

LENENGO BURUA.

Gurutzea ta gurutziltzetuaren jatorria.

LUDI (mundu) guztiak oso ondo dakien gauza da, antziñako garayan gurutzea zala gizonak asmatu zuten oñazerik aundiena, ta garai bertan lotsagarriena, gizabatzaren (soziedadearen) gaizkilleak zematutzeko. Aundia zan gurutze-aurreak bakarrik orduko gizonai ematen zioten ezin-ikusi ta gorrotoa, Judatar eta Erromatarrek, egizko uskurtzera (erlijiora) biurtu

ziranean, eta Jesukristo'k gurutzean bete zituan gure salbazioko misterio aundi ta alaigarrietan argitu ta erakutsiak izanda gero ere, oraindik ezin utzi zuten osotoro berak egur madarikatu ta lotsagarria esaten zioten gurutzeari lenagotik beren biotzetan zien gorroto ta ezin ikusia.

Orregatik gure Eliz Ama Deunak asiera baten, bere lenengo Seme berrien argaltasun au aurrean zeukala, ta iñori gaitz-biderik ez emategatik ontzat euki zuan, Elizaren lenengo asiera ta lau eunkietan, kristau berri aek gurutze utsa bakarrik gurtutzia (adoratzia) Jesukristo'ren irudirik gabe. Baña geroago, Konstantino aundi Erregea egizko uskurtzera (erlijiora) biurtuta Jesukristo'ren gurtzeko eriotza goratzeko, orduezkerotik aurrera gurutzean iñor eriotza ematea eragotzi zuanean piskaka-piskaka asi ziran gizonak ere galdutzen len gurutzeari zioten ezin-ikusi ta gorroto ura.

Onen bidez asi ziran kristauak ere, batere eragospen, lotsa ta bildurrik gabe gurutze deuna Jesukristo'ren irudiarekin batera gurtzen (adoratzen) eta andik aurrera, gurutzia agertzen zaigu beti irudi onekin, ta ikusten degu ipini ta jaso ta lekurik aukeratuenetan eta goikoenetan; au da, Elizetan, Aldaretan, baita ere erregen urrezigor ta burestunetan.

Euzkeldunak Jesukristo'ren Berri oneko azia

banatzera etorri ziran lenengo Belgundariai (Misiolariai) Jaungoiko bat gurutzean il zala gizonak erosi ta salbatzeagatik, aditu zienean erakusten, oso pozik eta atsegin aundiz aditu zuten berri on ura; ta orrela berealaxe artu eta laztandu zuten euzkeldunak alako berri on eta alaigarriak zekarzkien zeruko irakaskintz eder ura.


Esan dezakegu batere utsegiteko bildurgabe, euzkeldunak Elizak erakutsitako egi ta bide ederrak ikasi zituztenetik kristaubak izan dirala, ta Jaungoikoari eskerrak, arrezkero aurrerakoan ere beti kristaubak izan dira. Euzkeldun erriak ez du oraindik beñere ukatu, lenbizi batean artu zuan bere sinismen deuna, ta bere inguruko beste Erridi (Nazio) guztiak, asiera batean artu zuten sinismena berriz ukatu ta egizko Elizagandik alde-eginda egon diran tarte negargarriak beren edestian badituzte ere, euzkeldunen edestian ez da agertzen iñoiz orrelako erdoi zikin eta orban lotsagarririk, euzkeldunak beti-beti Elizarenak ta beti Elizaren alde ekin dutenak izan diralako.

Alperrik egingo dituzte beren alegiñak Godo ta Bisigodo deritzan erriak; Arrio gaiztoaren zinaustea (erejia) euzkeldunen artean banatzeko: alperrik etorriko dira gaizto asko ta bere jarraitzaileak, beren irakaskintza naskagarri ta lizunaz, euzkeldunen biotz garbiak asmo okerrez zikindu ta lizuntzeko: alperrik etorriko dira azkenean,

Judutar ta beste ziñausle (ereje) asko, egizko sinismenaren kaltez, gezur ugari alde guztietan banatzen dutela; euzkeldunak ardura guztiz urrutiratuko dira gezur-banatzalle orietatik, eta oso sendo eutsiko diote beren egizko sinismenari ta beren uskurtz (erlijio) deunari.

Eta orain buru au bukatzeko, eraztuna beatzari bezela, neri ere oso poliki datorzkit emen Juan de la Puente zeritzan lekaide (erlijioso) jakintsu batek bein euzkeldunaz esan zituan itz oroi-garri oek: *Euzkeldunak izan dira beti sinismen ta erlijuaren jarraile onak.*





BIGARREN BURUA.

Lezo'ko gurutzearen jatorria.

Lezo'ko gurutze deuna arkitzen da, Euzkelerriko lur onetsian (bedeinkatuan) noiz-edo-bein mendietan ur sendakai ta osasunkorrek dituzten iturri gorriak arkitzen diran bezela, gizonen gorputzeko ta animako eri, gaxotasun eta beste gañerako min guztiak leundu ta sendatzen dituztela, gizonak berak ezp dakite ere, orrelako urak nundik dakarten beren jatorri ta jayotza, noizkoak diran, eta batez ere nundik duten ur oriek beren zerutiko indarra. Onen bidez ez dizut esan nai, irakurle maitea, ez dakigula ezer argi ta garbi Lezo'ko gurutze deuna' ren jatorriaz ta bere agerkeraz gaur arkitzen dan



lekuan. Edesti-gayetan euki al leiteken ainbes-
teko baintasuna ba-degu Lezo'ko kurutzea'ren
jatorriaz eta bere agerkeraz, idatzita (eskribituta)
gauz argi-argirik billatzen ezpada ere.

Alde ontan iñork euki al leitezken zalantz (du-
da) ta bai-ez guztiak kentzeko, naikoa izango da
jakitea, gurutze onen jatorri ta bere agerkeraz,
Lezo'n ta inguruko beste errietan, gurasoetatik
umetara ta zarretatik gaztetara beti erakutsi izan
dana. Gizaldiz-gizaldi ta aotik-aora, gure aurreko
asabetatik guganaño eldu dan esaera batek era-
kusten du Lezo'ko gurutze deunaren agerkera
au iru eraz gertatu zala. Ona emen era bakoi-
tzak erakusten diguna.

Iru era oetatik lenengoak dio, miragarrizko Iru-
di au arkitu zutela itxaso aldamenean arrantzan
ari ziran bi aizpa batzuek: baño alako lekuan,
laister bide eman ziola agerpen onek auzi ba-
ti Lezo'ko ta Pasai'koen artean, nori ote zegokio-
naz agertu zan arrigarrizko gurutze ura. Ordea
gurutze deunak ber-berak laister argitu ta era-
baki zuan arrigarrizko era batez, erri bi aen ar-
tean jayotako auzia, iru alditan agertzen zala
Lezo'ko errian, gaur bere Eliza daukan tokian
bertan.

Bigarren esaerak dio, Landarreta zeritzan ba-
sarri-etxeko neskatx batek, bein batean bere
gelako leyotik itxasora begira zegola, ikusi zuala

Lezo'tik itxasora dijoan ibayan agertu eta on-doratzen zala alako kutxa bat. Kutxa onek esnatu zuala neskatx aren biotzean arrigarrizkoa zirudien gauz ura zer izango ote zan jakiteko gogo bizi bat, eta gogo ura betetzeko asmoz, bere etxetik irtenda joan zala ikustera, ordurako ibai ertzean gelditurik zegon gauz ura. Bein aren ondoan idiki zuan bada kutxa, eta oso arrituta gelditu zan neskatx ura ikusirik kutxa barruan zegola, andik aurrera Euzkeleerriak ain zaletasun biguna, oneraspen irazekia ta agurka aundia beti eukiko zion gurutzea. Erriko Apaiz Jaunai, ta beste gañerako Buru-nagusiai agertu zan; gauza onen ezaguera ta berria emanda gero, Lezo'tarrak eraman zuten gurutze ura, iru aldize-raño beren erriko Eliz-burura; alperrik ordea, bada beste ainbeste aldiz gurutze deuna agertu zan-da, gaur Lezo'n dagon lekuan bert-bertan.

Gurutze deun onen jatorri ta agerkeraz bada-go azkenean beste irugarren siniste bat, Isasti jakintsuak dionez, erakusten duana, gurutze deun au, Bayona'ko Gotzai (Obispo) Jaun, Leon deun Martiriak ekarri zuala, ta Lezo'ko Elizan ipiñi zuala euzkeldunai Jesukristo'ren sinismenaren ezaguera ta berri-ona ekartzera etorri zanean; onen bidez euzkeldunai adierazi eman nai izan ba-zien bezela, berak alako maitetasunean zeukaten gurutze deunari zor diogula euzkeldunok,

beti ain bizia izan degun Jesukristo'ren sinismen deuna, baita ere ortatik jayotzen diran beste ondasun guztiak, animakoak ta gorputzekoak.

Arrigarrizko gurutze onen jatorria noizkoa dan gaur agertzen dan tokian esan dezakegu batere zalantz edo ez-bai gabe, oso antziñakoa dala; bada ez bakarrik gure aurreko asaba euzkel-dunak, baita ere beste idazlari askok, ematen diote beintzat gurutze deunari lau eunki baño geyago gaur dagon lekuan, eta orrela gauza jakina da gurutze deun au Lezo'n arkitzen zala 16'garren eunkiaren aurretik. Egi onen agerpen oso argi ta eder bat ematen digu, Lezo'n bertako Apaiz jaun zan len izendatu detan Isasti idazlari jakintsuak. Jaun onek 1625'garren urte aurretik idazten (eskribitzen) zituan itz oek: *Lezo'ko gurutze deunaren gurtza (adorazioa) ta bere agurka (benerazioa) noiz asitakoa dan ezagutzen duanik, ez da gure garayan inor arkitzen.* Itz oez adierazten digu idazlari onek euzkel-dunak Lezo'ko gurutzeari zioten agurka, bere garaiko gizonik zarrenak ere ezagutzen zuten baño oraindik oso antziñagokoa dala.

Esaten ari geranaren beste agerpen oso eder bat, eta bai-ezetzik batere gabekoa, eskeintzen digute, len esan degun 1625'garren urteko zinaaldariak (testigoak) Eleizaren agintz, eta berak orrelako gauzetan beti gordetzen dituan lege-bidez, galde-

tuak izan ziranak, alde ontan berak zekien egia esateko, Lezo'ko gurutze deunaren antziñatasunaz, eta berak egiten zituan arrigarrizko egiketaz; ziñaldari osoak, guztiak batera erantzun zuten: *oso antziñakoa zala Lezo'ko gurutze deuna, ta orduan bizi ziran zar guztiak, oso ondo zekitela, eun urte aurre oyetako arrigarrizko gertaerak: au da 1400 urte aurretik gertatu ziranak.*





Eliz-nagusia erri gusiaren gañetik.

IRUGARREN BURUA

Lezo'ko gurutze deunak bere zalezkoen
(debotoen) aldez egin dituan arrigarr-
izko egiketak.

Aurreko buruan ikusi degun bezela oso gu-
txi ta laburrak ba-dira ere, Lezo'ko gurutzearen
jatorri ta bere agerpenaz, bere antziñatasunaz
ditugun berriak orde z oso asko ta ugari di-
tugu irudi maitagarri onek bere zalezkoen aldez
egin dituan gauz aundi ta arrigarrizkoenak.
Euzkelerriko alde ta baztar guztietan arkitzen di-
ra gizon eta emakume asko, oso pozik gogoraz-
ten dituztenak, Lezo'ko gurutze deunak egin dien
laguntza bereziren bat, edo beren aldez egin duan
arrigarrizko egipenen bat.

1602'garren urtean, Azaroaren bosteko egu-
nean, Burgos'tar Matai Aba, Iruña'ko Gotzai
(Obispo) jaunak aginduta, Donosti'ko Urian asi-
zan Elizako argibide bat, Lezo'ko gurutze deu-
nak egiten zituan gauz aundi ta arrigarrizkoen
egitasuna ezagutzeko. Argibide ontara ots-
-egiñak izan ziran gizon eta emakume asko
ziñaldariak (testigoak) izateko. Lezo'ko, Pasai'ko,
Asteasu'ko, Donosti'ko, Ondarrabi'ko, Tolosa'ko,
Markiña'ko eta beste leku askotako ziñaldariak
Donosti'ko Eskribaua'ren aurrean egia esango
zutela, ziña (juramentu) eginda gero, gure Eliz
Ama deunak, orrelako gauzetan beti gordetzen
dituan lege-bideak ziñaldariai artuta, guztiak gal-
detuak izan ziran, Lezo'ko gurutze deunaz, eta
berak egiten zituan arrigarrizko gauzak, berak ze-
kitena edo besteai adituta zeukaten guztia esateko.

Orrela bada, Lezo'ko gurutz deunak bere za-
lezkoen alde egin dituan eta nik orain ipiñi nai
nituzken egiketa aundi ta arrigarrizko oek, egune-
tik egunera geitu ta iziotzeko nere euzkeldunen
artean gurutze orrenganako sinismen bizia ta
uste aundi bat; ez dira izango, irakurle maitea,
nolanaiko eta bai-ezezko gauzak; oso egiak
eta egitasunik aundienekoak; au da orrelako
gauzetan Epalle uts-eziña dan Eliz deunak
egizkotzat ezagutu dituanak, eta beraren bayetza
dutenak; emen ipiñiko ditudan egiketa guztiak

artu ditut, len esan detan, Donosti'an egin zan Elizako argibidetik. Lezoko gurutze deunak bere zalezkoen alde egin dituan egiketa arrigarrizko oek, beti dira animako ta gorputzeko osasunari dagozkienak.

Arrigarrizko lenengo egiketa oetan bat da, Bizkaya'n Markina'ko Olozga'tar Kataliñen alde egin zuana. Gazte onek ogei urte ingurukoa zala izan zuan gaxotasun baten ondoren itz gabe gelditu zan, eta egoera negargarri ontan ba-zeramazkien berrogei ta bi egun. Ikusita ordea beretzat alperrik zirala lurreko sendakiak, eta etzala gai sendagillien jakintza guztia berari berriz itza biurtzeko, bere sinismen guztia ta itxedopen oso osoa Lezo'ko gurutze deunean ipiñi zuan; etorri zan bada Lezo'ra bere Amak laguntzen ziola: bein Lezo'n belaunikatu zan gurutzearen oñetan, eta bere gaitzak biotzaren zakon-zakonetik zotin garratzak ateratzen zizkiola, zuzendu zizkion Irudi maitagarriari eskari bigun eta otoitz irazeki asko, garai bertan bere masalletatik malko ugari ixuritzen zituala. Laister ordea, gurutze deunak ordaindu ta saritu zion neskatxonari beragan ipiñi zuan itxedon osoa; eta poz eta atsegiñez beterik bere biotzak gañezka egiten ziola, biurtu zitzayon berriz bere itza *gaitz artatik sendatuta gelditzen zala, ta egiketa au arrigarrizko gauzatat zabaltzen zala*: eta neskatx ark,

ber-berak ere orrela ezagutzen zuala, etorri zan berriz ere Lezo'ra bere egun batean irudi maitagarriari eskerrak ematera gurutze deunaren sari bat ekarriaz.

1569'garren urtean bizi zan Pasai'ko errian, urte askotan esku ta oñez oso elbarritua zegon Usanzu'tar Katalin zeritzan emakume bat; egoera ontan, egin zuan eskeintza bat Lezo'ko gurutze deunera etortzeko, ango gurutzearen birtartez Jaungoikoari bere osasuna eskatzen ziola, beintzat lan piska bat egiteko, beretzat eta bere semientzat zerbait irabazi zezan, bera alarguna zan-ta.

Lenengo aldiz Lezo'ra etorri zanean, piska bat bakarrik obetuta gelditu zan; baña gero berriz bigarren aldiz etortzen zala *berealaxe oso sendatuta gelditu zan bere gaitzetik*: eta eskiñi zuan berderatziurrena betetzen Lezo'n egon zan egunetan, Elizako atarian jardutzen zan bere eskuz gurutzeko irudia egaluntzen (bordatzen) ortarako Olanda'tik ekarritako zapi ederrez. Gero egalundun edo irudi ura gurutzeari saritu zion, Eliz artan bertan gordeta gelditzen zala.

Orain esan degun esker onen antzeko bat artu zuan ere 1577'garren urtean Asteasu-errian bizi zan Sagastume'tar Miren zeritzan beste emakume batek. Emakume au bere eskuak elbarrituta zeuzkala bi urtetan egonda gero azkenean Lezo'ko

gurutze deunak sendatuko zuan itxedon bizi batez etorri zan bere elizara, ta irudi maitagarriaren aurrean sinismen aundi ta irazeki batez otoitz eginda gero, joan zan, gaba igarotzeko asmoz, lenagotik ezagutzen zuan Lezo'ko Apaiz jaun batek etxera; gau artan bertan oean zegola, berealaxe baten sendatuta gelditu zan, *gauz au egiketa arrigarrizkotzat banatzen zala*: urrengo goizean berriz errian arrigarrizko gauz au jakin zutenean, prozesioan erabilli zuten emakume ura, bere eskuak gora jasota jende guztiak ikusi zedin, bitartean Apaizak, Jaungoikoari eskerrak emateko *Te Deum laudamus* abestutzen zutela.

1540'garren urtean, Errenteri'koa zan Isasti'tar Miren Mikele izena zuan andre bat; oñetatik elbarritua zegon, eta gañera iztarretan oñez ibiltzea galerazten zioten alako aragi koskor aundi batzuk zeuzkan; egoera negargarri ontan zerman urte bat, geyenetan oean egon bear izaten zuala. Ikusirik bada, alperrik zirala sendagillien jakintza ta aren alegin guztiak berari osasuna emateko, etorri zan bi aldiz Lezo'ra gurutze deunak osasuna emango zion itxedon oso-osoa; eta egiten ari zan bederatziurrena bukatu zuanean, ondo gelditu zan, eta artu zuan osasunaren oroigarritzat bere galtzar-makillak Lezo'n utzi zitan, elizako ormetatik zintzilik egon zitezen: arrezkero Andre onek beti osasun oso ona izan

zuen, eta baita ere beti bere oñez batere eragozpenik gabe ibili zan.

Bederatzi urteko beste neskatz batek esan degun andre onen antzeko esker bat artu zuan. Nekatx au Mariatxo zeritzan, eta zan Mariatxo-aundi esaten ziotenaren alaba, Naparro'an Aranz'ko errian bizi zana Gazte au bada, garai bertan elbarritua ta itz gabe zegola, bere Amak Lezo'ko gurutzera ekarri zuan; eta an eskeñi zuan bederatziurrena eginda gero, etxera zijoala bere alabarekin, au asi zan itz egiten eta geroztik bere oñez ibilli zan oso errez eta garbi itz egiñaz.

Orain arte esan ditugun bezelako beste esker asko artu zituen ere Lezo'ko gurutze deunaren bitartez Anbulodi'tar Marka'k, Iturralde'tar Jago-ba'k, Iranzu'tar Katalin'ek eta orrelako gaxotasun sendakaitzak zituzten beste askok. Len izen datu detan Donosti'an egin zan Elizako argi-bidean irakurtzen dan bezela, oso ugari dira elbarrituak, itxuak, itz gabeak, min-bizikoak, uminduak eta beste orrelako sendakaitzekoak, Lezo'ko irudi maitagarriaren bitartez, beren gaitz eta gaxotasunetatik sendatuak izan diranak.

Arrigarrizko egiketa oez, oso argiro adierazten dizkigu gure Jaungoikoak itxedon osoz eta sinismen bizi batez, bere gaxotasunetan, eta beste gañerako edozein estutasunetan Lezo'ko gu-

rutze deunari, beren aldez ots egiten dienai irudi maitagarri ark egiten dien esker ugariak, eta bear bada, orrelakoen aldez egiten dituan gauz aundi ta arrigarrizkoak, orrelakoai beti laguntzen diela.

Egi onen agerpen oso eder eta agiri bat daukagu, irudi maitagarri onen bizilekua izateko, Lezo'n jaso dan Elizako ormetatik zintzilika arkitzen diran ziñitz-oroigarrietan. Elizan sartuta, beste ezer baño lenago, an ikusten dira alde bietan, orma oyetatik zintzilika ziñitz-oroigarri oek: galtzar-makillak, burniz edo argizaiz egindako oñak, iztarrak, eskuak, besoak eta abar.... gurutze deun ark bere zalezkoen aldez egin dituan beste ainbeste arrigarrizko egiketak gogoratu erazten dieztenak ara dijoazen guztiai. Eta batez ere ziñitz-oroigarri oek an daude, euzkeldun guztioi gogorazteko, gurutze deun ark gure antziñako asaba, ta aurreko erbeste euzkeldun egizko sinismen bizi-bizia zutenai egin zien ainbeste errukizko eskerrak, eta oen aldez egin zituan arrigarrizko amaika egiketa aundi. Ziñitz-oroigarri oek erakusten dizkigute euzkeldun bakoitzari guk ere artu ginduzkela esker asko ta ugari gurutze deun orrengandik, beragan ba-degu antziñako euzkeldun aek euki zuten itxedon oso-osoa, ta sinismen bizi-bizia.



LAUGARREN BURUA.

Lezo'ko gurutze Deunak gure itxasgizonai beti lagundu die.

LUDIAN (m'unduan) baldin ba-dago beti bildur-ikaraz eta estutasunez inguratuta arkitzen dan egipenen bat, beste edozeñena baño geyago itxasgizonen egipena da ori. ¡Gizajoak! Berak dakite, beste iñork baño askoz obeto, zer dan itxasoko



Lezo'ko txadon-atadia.

bizitza. Berak beti daukate beren oin azpian itxasoko zakon-zakona; itxasoko ujol arroaz beti inguratuta arkitzen dira, ikaragarrizko orroyak ema-

naz, une guztietan itxas-ondora irentsi nai dituztela; gañean berriz zerua askotan oso illuna ta beltz-beltza, ikaragarrizko turmoyak aditu bear dituztela, ta noizetik noizera zeru-goyan diztiazten duten tximist bildurgarrien argia baizik ikusten ez dutela. Au da gutxi gora-bera, gure itxas-gizonen bizitza. ¡Beti estutasuna! ¡beti beldur-ikara! ta ¡beti berealaxe batean beren sendi (pamili) maitetik oso urrin bizitza galtzeko zorian! Egiz zorigaiztoko bizitza da au.

Esaera batek dio: *jakin nai ba-dek otoitz egiten, asi adi itxasoan sartzen*: eta orrela izaten da; orregatik itxas-gizonak geyenetan izan oi dira beste gañerakoak baño gizon sinismendunagoak, eta beti eukitzen dute aukeratuta alako deunen (Santuen) bat, edo beste olako izeneko Ama Birjiña-ren bat, beren itxasoko estutasunetan beren alde berari ots-egiteko. Ez dago ez-bairik, euzkeldun itxas-gizonak beti zaletasun bigun eta oneraspen berezi bat izan diotela Lezo'ko gurutze deunari, ta gurutze onek berriz bere alde betiraundu dituala euzkeldun itxas-gizonak, eta batez ere beti lagundu diela itxasoko beren zorigaitz eta estutasun guztietan.

Ala ere emen ipiñi nai ditut orain, beste askoren artean, Lezo'ko gurutze deun onek, itxas-gizonen alde egiñak dituen arrigarrizko egiketa batzuek, orrela egunetik egunera geitu dedin gur-

utze orrenganako oneraspena gure itxas-gizonen artean.

1593'garren urtean itxas-gizon nagusiak ziran Zubiaurre'tar Pedro ta Villaviziosa eta Lizar-tza'tar Juanes, España'ko Errege Pilipe bigarrenaren orde, jun ziran amabots itxas-ontzikin Bordeaux'ko ibaira pantzez eta ingelesai aurre-ematera; oek orde gureak baño askoz geyago ziran; beintzat larogei itxasontzi ba-zituzten, eta orrela gureak berealaxe gelditu ziran erdi-erdian artuta, ta beren etsayez alde guztietatik inguratuak, guztiak galdutzeko oso zori aundian. Ala ere, ekin zioten ontzitalde biak, batak besteari, alde bietatik asiera batean gizon asko iltzen zirala. Zubiaurre'k bere eskuetan gurutze bat zuala, ari zan bere lagunak alaitu ta indartzen, beren etsyai gogor egiteko; guztiak orde galtzeko zori aundian arkitzen ziran alegiñak egiten ba-zituzten ere etsaya menderatzeko. Larri aundi artan, egizko euzkeldunak bezela beren itxedon osoa Lezo'ko gurutze deunean ipiñi zuten; eskeñi zuten estu artatik ongi irtetzen ba-ziran oin-utsetan Lezo'ra etortzea jaupa (meza) bat ateratzeko, gañera argi-ontzi bat zekartela berekin gurutzearen aurrean beti argi egiten egoteko.

Egitan, etzan alperrik izan Lezo'ko gurutzean ipiñi zuten siñismen bizi ta itxedon oso au; bada alde guztietatik etsaiz inguratuta arkitzen ba-ziran

ere, azkenean iritxi zuten gureak garaipen oso aundi ta ospetsu bat; gureak itxasontzi bat baik etzuten galdu, beren etsayak asko itxas-ondorra bota zieten bitartean. Gero guztiak Lezo'ra etorri ziran poz eta atsegiñez gañezka, egindako eskeintza betetzera, gurutze deunak beren alde egin zuan egiketa aundi ta arrigarrizko au alde guztietan banatzen zutela.

Beste batean Pasai'ko ta Lezo'ko arrantzale batzuk juan ziran Terranova'ra, bakallua arrainkatzera; baña itxasoan jaki zan ekaitz aundi batek galdu ta ondoratu zioten zeramaten itxasontzia; arrantzale gaxoak, ito zan baten ostez, beste guztiak goroiki lodi bati elduta, igarian lurreraño etorri ziran al zuten bezela; ordea guztiok oso bustita. Egualdi guztiz otza egiten zuan, eta otzikaraz arkitzen zirala, asi ziran sua egiten ontzi batean billatu zuten polboraz; au ere ordea oso bustita zegon, eta etzuan iñola ere su artu nai: orduan Lezo'ko arrantzale batek esan zien bere lagunai: *otoitz egin dezayogun Lezo'ko gurutze deuna'ri jaupa (meza) bat eskeintzen diogula, ta euki itxedon oso-osoa, berak lagunduko digu-ta*: au esan eta polborak bere inguruko egur guztiaz su artzia, gauza ber-bera bat izan zan.


Gero beste kai batean topatu zuten Donosti'ko itxasontzi batean, oso pozik eta osasun onez, bakoitzak bere etxera etorri ziran, baita ere geroa-

go guztiak batera Lezo'ra beren eskeintza betetzera. Argibide onen ziñaldariak (testigoak) diote, arrantzaleak gertaera au Lezo'n esan zutenean, arrezkero batez ere oso asko geitu zala gurutze deunaganako zaletasuna, batez ere ordea gure itxasgizon eta arrantzalien artean.

¡Zenbat gaitzetatik askotan iges egingo luke gure itxasgizon euzkeldunak, itxasoko beren estutasun guztietan, antziñako gure itxasgizonak egiten zuten bezela Lezo'ko gurutzerontz beren begiak zuzenduko balituzke! Eta ¿zergatik orain ere orrela ez dute egiten itxasgizon euzkeldunak? ¿Ez ote da Jesukristo beste garai batean aizeai eta itxasoai agintzen ziena, aize aundiak eta ujol arroak geldi-geldi gelditzen zirala, aren Jaungoikozko itza aditzeaz bakarrik? ¿Ez ote da Jesukristo itxasoko ujol asarretuaren gañean, lurrean bezela txuti-txutik zebillena? ¿Ez ote da Jesukristo, itxas-ondora zijoan bere lkasle maite Pedro Deunari bere eskua luzetuta gora atera zuana, ujol gañean beragana etortzea agintzen ziola? Bada Jesukristo ber-bera, au da orain ere nere itxasgizon euzkeldunok, Lezo'ko gurutzetik zuei laguntzeko beti gerturik dagona, zuek zuen estutasun guztietan berari ots-egiten ba-diozute. Zuen itxasoko bizitza ainbeste estutasun eta zorjgaitzez inguratuta beti arkitzen danezkero, egizko itxasgizon euzkeldunak bezela, eraman zuen

beti zuen itxasontzietan, Lezo'ko gurutze deunaren irudi arrigarria; euki beti irudi oni zaletasun bigun eta oneraspen irazeki bat, eta itxedon oso-osoan bizi itxasoko ekaitz guztiak eta ujol arro osoak, guztiak batera ez diran izango gai, zuei kalterik txikien bat ere egiteko; ta alako batean itxas ondo-ondoraño eroriko ba-giñake ere, sinismen sendo bat izan, Lezo'ko gurutzean dagon Jesukristo guzalduna dala, zuek berriz itxaso gañera batere kalterik gabe ateratzeko.





BOSGARREN BURUA.

Euzkeldun erriak Lezo'ko gurutzeari
beti izan dien zaletasun eta
oneraspena.

GURE Jesukristo
Jaunak orain-
dik ludi ontan bizi
zala, bere buruaga-
tik bein batean itz
egiten zien Judarrai
orrela: *et ego si exal-
tatus fuero a terra
omnia traham ad
me ipsum*: ni bein gu-
rutzean goratua iza-



ten naizenean gauza guztiak nereganatuko ditut.
Eta Jesukristo'ren hitz oroigarri oek, bere eriotz
ondoren beren betetasunik osoena berealaxe eu-
ki zutela, gaur iñork bai-ezetzeari ipiñi ezin lei-
ken egia da. Bidalduak (Apostoluak) Jesukristo'
ren irakaskintza osasungarriak banatzen asi zir-

an ain laister, bai gizon bakoitza berezian, eta bai gizabatzak osoan, guztiak batera; beren animak aspalditik ain egarri arkitzen ziran egiaren billa, berealaxe zuzendu zituzten beren begiak, kalbarioko mendian goratua izan zan gurutzerontz, eta gurutze artan bertan guzien osasunerako il zan Jesukristo'rengana. Orduan egin zan ludian gizaldiak iñoiz ezagutu duten aldaketa, ta zalapartarik aundiena.

Jesukristo'ren gurutzeko irakaskintza zerutarrak Kalbario'ko mendi tontorretik ludi osoan banatzen zuten argi diztiatsuren aurrean, gertaera arren jakintza utsala illunduta geratu zan; eta gurutzearen Jaungoikozko almenez, bere arrigarrizko indarra, Erromatar arroen aunditasun osoa, ta beren almen guztia, berealaxe lurrera erori zan nekatuta bezela geratzen zala. Len gizonen agurka (benerazio) utsak artzen zituzten gezurrezko Jaungoikoak arkitzen ziran aldaretan, agertu zan Jesukristo'ren gurutzeko ikurrin garailea, jasa ta aunditasunez beterik, biotz guztien Jaungoikozko agurka irazekiak artzen zituala.

Arrezkero Jesukristo'ren gurutzea izan da beti erri ta gizabatza guztien osasuna ta donokitza (salbazioa) bere zerutar irakaskintzaz eta bere Jaungoikozko onbidez. Eta erriak eta gizabatzak beti oso zorionekoak izan dira, gurutzearen Jaungoikozko itzalpean, pakean bizi izan diran bitar-

tean, eta Jesukristo'ren irakaskintza ederretatik alde egin ez duten artean. Eta emen egi guztiz esan dezakegu, gurutzeko itzalpe deunean oso zorionekoak izan diran erri oyetakoren bat, noski gure Euzkelerri maitea dala. Emen alperrik izango da berriz esatea, euzkeldunak egizko uskurtzaren (erlijioaren) berriona lenengo aldiz aditu zute-nean berealaxe itxedomen aundiz, sinismen biziz eta berotasúnez laztanduko zituztela Jesukristo'ren gurutzeko irakaskintza ta berri eder ayek. Esan dezakegu batere utsegiteko bildur gabe, Jaungoikoak saritu nai izan diela euzkeldunai gurutzeari lenbizi batetik euki dien oneraspena, beren artean. Lezo'ko Elizan bere jantoki ta bizilekua euki nai izaten duala; Lezo'tik ere errukizko jartokitik bezela, euzkeldun osoak eta Euzkelerri guztiak onetsitu (bedeinkatu) eta zaitzeko, bere Jaungoikozko itzalpeaz.

Eta orain euzkeldunak ere, beren aldez oso oneraspen irazekia ta agurka aundia, Lezo'ko gurutze deunari beti euki diotela agirian ipintzea ez da gauza ain zalla. Ta lenengo, egi onen agerpen oso eder eta argi-argi bat da, Euzkelerriko etxeak berak barrendik ikustea; oso gutxi dira, batez ere baserri-etxeak, beren gelaren batean Lezo'ko irudi maitagarri au orrela gordetzen dutela etxetan, sendikoen (pamilikoen) bati, gurutze deunak egin dion alako edo beste olako esker

bereziren bat etxeko guztiai gogorazteko. Egi au-bera agertzen digute euzkeldunak eramanda, Lezo'ko elizan dagon irudi maitagarriaren aurrean, egunero erretzen egoten diran ainbeste argi, adierazten dutela beren garraz, beti oso bizi ta iziotuta dagona dala euzkeldunen sinismena, ta argi aen garrak bezela oso berotua, Lezo'ko gurutze deunari dioten maitetasuna ta oneraspena.

Auxe bera adierazten dizkigute, Lezo'n gurutze deuna dagon Aldarean, gurutze onen zalezkoak diranak an esateko eramaten dituzten urtero esaten diran jaupak (mezak); jaupa oek beti izaten dira, batzuetan artutako laguntza batengatik eskerrak emateko, ta beste askotan berriz alako edo olako eskerreren bat gurutze deunaren bidez iristeko.

Gañera oso asko izaten dira ezkontzeko ere Lezo'ko gurutzera etortzen diran euzkeldunak, gurutze deunaren aurrean sendotzen dutela ezkonberriak, batak besteari leialtasuna gordetzeko alkar ematen duten itza; gurutze deunari eskatzen diotela onetsitu (bedeinkatu) dezala ezkontzaren bidez orduan biak ipintzen duten sendiko (pamiliko) ta gizabatzeko arri-ondopena (zimen-dua) sinistu ta biziro itxedoten dutela orrelakoak, Lezo'ko gurutze deunaren itzalpean ospatzen diran ezkontzak beti daramatela batez ere zeruko onetsi berezi bat, eta beti zorionekoak izaten di-

rala alkarrekin orrela ezkontzen diranak.

Baña erri euzkeldunak batez ere agertzen dute Lezo'ko gurutze deunari dion zaletasun biguna ta oneraspen irazekia, urtero leku artara egiten dituzten joateaz. Orain alde batetik bestera, ara ta onuntz, Euzkelerriari jarri diran ainbeste burnibide eta gaurko egunetako aurrerapenak asmatu dituan beste amaika gurdi aukera guztietakoak etziran baño lenago, Lezo'ko gurutzera egiten ziran erromeri ta jorruteak, beti zeramaten'berekin erromeri euzkeldunen izakera berezia. Orrela erromeriko egunetan ikusten ziran jende sail aundian alde guztietatik Lezo'rontz zuzentzen ziranak; euzko-mendiak, zelayak, ibarrak eta erriak oñez iragozten zituztela poz eta atsegiñez beterik, beren danbolin eta txistu jotzen zutela. Beste aldetik ikusten ziran berriz itxaso zabal-zabalean, ezin esan al itxasontzi gure arrantzale ta beste itxasgizonez bete-beteta zetoztenak, alaitasunez gañezka beren itxas-abestiak abestutzen zituztela: batzuek Donostia'n eta beste asko Pasai'ko kayan gelditzen zirala, lurretik oñez zetoztenakin alkartuta, guztiak batera lenbaitlen Lezo'ra eldu ta gurutze deuna gurtutzeko (adoratzeko) gogo aundi ta irazekiz.

Iru dira, batez ere orain urtero Lezo'ra egiten diran jorruteak. Lenengoa Goteuna'ren (Espiritu Deuna'ren) bigarren jayegunean; bigarrena, Lezo'

'ko gurutze deunaren eguna dan Agorrilla'ren amalaugarren egunean; eta irugarrena, jorrutea izaten da batez ere umeena, alde guztietatik oso ume asko etortzen dirala; umien jorrute au izaten da Agorrilla'ren lenengo egunean. Jorrute oetako egunetan zenbat jende Lezo'ra juten dan jakiteko, lenengo ikusi bear lirake, egun orietan, gurutze deunaren eliz-inguruan batutzen diran sail oso izugarriak. Zorioneko egun orietan, Lezo'n arkitzen dira, adizkidetasunik aundienaz, eta egizko anayak bezela maitetasun bigunez oso alkartuta Bizkai'ko, Araba'ko, Naparro'ko, Gipuzkoa'ko, baita ere Bidasoa'zarunzko euzkeldun guztiak, guztien Jaungoiko dan Jesukristo, Lezo'ko gurutzea gurtutzerera (adoratzerera).

Orregatik gauz oek guztiak, bere aurrean zeuzkala, ta Lezo'n ain sarritan gertatzen ziran arrigarritzko egiketak ikusita, Gotzayak euzkeldunen Lezo'ko gurutzearenganako oneraspena, egunetik egunera geitzeko asmoz; 1605'garren urtean, Epaila'ren 26'garren egunean, erabaki zun; lenengo, Lezo'ko gurutze deunari oneraspen aundi bat eukitzea; bigarrena, Jaungoikoak batez ere aditzen dituala Lezo'ko gurutzearen aurrean egiten diran otoitz eta eskariak; eta irugarrena, Lezo'ko gurutzeak batez ere laguntzen diela, beren aldez ots-egiten dien guztiai.



Lezo'ko Gurutze Doitsuari

BEDERATZIURRENA

Aspal-aspalditik Lezo'ko Gurutze Santuan
egiten dan bezela.

BEDERATZIURREN ederra egiten da Lezo'n,
Gurutze Santuko Elizan, urteoro. Asten da
Loyola'ko Inazio Doitsuaren egunean, eta jaitik
jaira dijua egiñaz Gurutze-Jasoaldiko egunean
bukatzera. Inazio Doitsuaren jaya—ostiralakin
datorrenean bakarrik—asiko da abostuaren bian.
Eta bederatziurren au

ASPALDIKO GAUZA DA.

Gizon jakintsuak diotenez ba-dira milla urte
Lezo'ko kristauai Bayona'ko Apezpiku Leon
Doitsuak Gurutze au eman ziela; eta beste jaye-
ren artean, laster asiko ziran Gurutze-zaleak be-
deratziurrenak egiten. Gauz abek lenen idatzi zi-
tuen Isasti'tar Lope gizon argiak dionez, ba-dira
irureun eta geyago urte egiten dala elizkizun au
Gurutze Donean. Eta

NORI GAUZAK ESKATU

jakin nai ba-dezu, Betiko Aitaren eskuan daudela guk bear ditugun guziak, nik esango dizut. Eskatu: dezayokegu edozein gauz, eta ongi eskatzen ba-diogu, bear danik ezdigu ukatuko. Eta errazago gauzak iristea nai ba-dezu, eska zazu

GURUTZE DOITSUAREN BITARTEZ,

onela eskatutako gauzik emangabe ezduala utziko esana daukalako. Eta esatez gañera, kondairak dionez, ala egin du. Milla eta milloika dira arrantzale eta itsasgizonak, langille eta mintsuak, gudalari eta gañerakoak, bizitz onetako eta beste bizitzako bearretan, ongi atereak. Nai duanak ba Gurutzea bitarteko eduki, eta Aitagandik eskatzen diona iritxi, egin beza emen arkitzen dan bederatziurren au

AITORKETA EDO KONPESIOKO

UR EDERRETAN

bere biotza garbituta; biotza garbiago eukiaz, zeruko ondasunetarako gertuago dagolako. Au egin liteke irugarren eta azkeneko egunean, eta egun guzietan egiten bada, obe eta obe. Lenago beñere, edo aspaldian konpesioa berritu ez duanak, orain egin lezake egoki. Zer eman daukanak ez dio itz egiten bitartekoari esku utsez; nai duana obeki iristeko joaten zayo

ESKAIN-SARIAKIN.

Gure bitarteko Jesus onak ez du gure gauzen bearrik; ala ere ongi artzen du biotz onez ematen eta egiten zayona. Eskañi lezayoke: lepotik zintzilik gurutze bat edukitzea; Jesus gurutzetuaren zauriak gurtutzea, Gurutz-bide edo Kalbarioa esatia, Jesus'en nekaldia oroituaz meza entzutea, ziñatzen geranean, barrendik eta azaletik, begirunez gurutze egitea, ostiraletan zerbait barautzea, Lezo'ko Gurutzearen Anaidi edo Kofradian sartzea eta Arren Elizari zerbait limosna egitea. Orra bederatziurrena egiten danean egin litezken zenbait gauz. Oek guztiak onak izanarren, guzik baño geyago

JESUS'EK NAI DU BIOTZA.

Nai duanak ba, Bitarteko sendo, gerta degion bere Aitarekin, utzi bezayo Jesus'en eskuetan bere biotza, dituan asmo, gogo eta egiteko guztiaz. Egin dezake ori bederatziurrena astean eta gero noizean bein. Nai ba-dezu orain jakin

NOLA EGIN BEAR DAN

atoz goiz Lezo'ko Gurutze doneko Elizara; auke-
ra ba-dezu eta konpessa zaite; Jauna artuta gero,

zortzietan, Gurutzea agirian daukazula meza entzun, bitarteko eresi eta soñu ederrak entzunaz; eta azkenian Apaizakin batean, ziñatuta esango dezu

Damuzko Otoitza.

Nere jaun Jesukristo, egizko Jainko eta Gizona, nere Egille eta Erosle maitagarria, Zu zerana zeralako, neurrigabeko ontasuna, eta maite zaitudalako gauz guztiak baño geyago, damu det biotz osoz, damu det Zu naigabetua. Geigo pekaturik ez egiteko asmo bizi bat artzen det; baita pekaturako bide guztititik aldatu, ongi konpesatu eta penitentzia egiteko ere. Onela nere bizitza onduta, barkatuko didazula eta salbatuko nazula uste osoa det. Alaxen Jesus.

Eguneroko Otoitza.

Lezo'ko Gurutze doitsu maite maitea! Nik orain daukadan bezelako bear asko Zuk Gurutze ortatik estali dituzu erruki aundiz. Lagundu diezun oyeri bezain bigun esaten didazu: *eskatu eta artuko dezute*; eta itz abek entzutean, Zure Irudi orren aurrean auzpezten naiz, uste osoz beteta. Gurutzean jositako nere Jesus! Bestientzat zabal-duta dauzkatzun biotz eta esku oek, nere gaizkiak bakar-bakarrik itxi lezazke neretzat.

Jaun bigun-biguña! Nik bear bezela bigundu zazu nere biotza bederatziurren ontan nai detan ontartea iristeko.

Garaua bezela, bear guzien osagarri Jesus, damazun Zuaitz doitsua! osatu, arren, gaur nere bearra.

LENENGO EGUNERAKO.

Jesus ona! Lurreko gauz guziak Zure laguntzen txikiena ainbat ezdirala ikusirik; eta nere eskari, negar, zañetako odol ixuitze, eta lurreko indar guztiekin ere, bear bezela, laguntze oetako bat ezin irabazi nezakela ezaguturik, nere txikitasun eta doakabetasunez ezereztuta aitortzen det ez naizala bederatziurren ontan eskatzen dizudan laguntza irabazteko ainbat; eta Zure azkengabe-ko errukiz bakarrik iristea uste det.

(Egi au pixka batean gogartetu).

Asmo ona: nere ezereztasun au gogoan erabil-tzea gaur.

Eguneroko beste Otoitza.

Erruki aundiko Jesus! Gurutze orretan ikusten zaitudanean iltze gogorrez eskuak igarota, biotza burniz irikita.... eta laguntz-eske Zuregana datozen maitaleei begira, ontartez beteko na-

zulako itxaropen aundi bat artzen det, noiznai edozein gizon, Zure begi errukitsu, biotz bigun, eta esku onetsi oen bitartez; eta batez ere nai det iritxi orain eskatzen dedan gauz berexia. Arren, bai.

(Emen agertzen du bakoitzak bear duan zer nai gauz).

BOST SAURI DOITSUREN GURKETA

Eskerreko oñeko zauriarena.

Gurtutzen det Zauri doitsu ori; eta orren bidez, Jauna, nere ibillera gaiztoz egindako pekatu guzien barkapena eskatzen dizut.

(Aita gurea eta Gloria.)

Esqubiko oñeko zauriarena.

Gurtutzen det Zauri doitsu ori, eta orren bidez, Jauna, nere itz eta esku gaiztoz egindako oker guzien barkapena eskatzen dizut.

(Aita gurea eta Gloria.)

Ezkerreko eskuko zauriarena.

Gurtutzen det Zauri doitsu ori eta orren bidez, Jauna, nere begi eta beste zentzunez egindako gaizkien barkapena eskatzen dizut.

(Aita gurea eta Gloria.)

Eskubiko eskuko zauriarena.

Gurtutzen det Zauri doitsu ori, eta orren bidez, Jauna, nere oroimen, adimen eta naimenez eging-dako pekatu guzien barkapena eskatzen dizut.

(Aita gurea eta Gloria).

Sayets doitsuko zauriarena.

Gurtutzen det Zauri doitsu ori, eta orren bidez, Jauna, eskatzen dizut Zure biotza burniz, eta Zure Ama min-minduaren oñazez zulatu zuten bezela, nerea ere igaro dezatela Zure argi goitsuak; pekatua baño eriotza nayago dedala, beñere Zu nayeztu gabe, beti Zu maite zaitzadan. Alaxen.

(Aita gurea eta Gloria).

Ant. O Cruz benedicta, quæ sola fuisti digna portare regem cœlorum et Dominum. Alleluia.

Vers. Hoc signum Crucis erit in cœlo.

Resp. Cum Dominus ad judicandum venerit.

OREMUS.

Deus qui nos Exaltationis sanctæ Crucis Commemoratione lætificas: præsta quæsumus; ut cujus mysterium in terra cognovimus, ejus redemptionis præmia in cœlo mereamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

(Agorreko amalaubean, Gurutze-egunean esá-

ten da otoitz orrèn tokian beste au):

Deus, qui nos hodierna die Exaltationis sanctæ Crucis annua solemnitate lætificas: præsta quæsumus; ut cujus mysterium in terra cognovimus ejus redemptionis præmia in cælo mereamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

ORI BERA EUZKERAZ:

Ant. O! Zeruen Jaun eta Erregea jasotzeko ainbat bakarrik arkitu zifian Gurutze onetsia! Alleluya.

Vers. Gurutzearen ezagungarri au izango da zeruan.

Resp. Epaikuntzara datorrenean Jauna.

OTOITZA.

Gurutze doitsuaren Jasoaldiko oroitzaz (urteoro jai aundian gaur poztutzen gaituzun Jainkoa! Gurutzearen misterioa ezagutu degunezkeroz, beraren erospeneko saria irabazi dezagula zeruan, arren, iguzu. Kristo berberaren bitartez. Alabiz.

Ant. Tuam ipsius animam (ait ad Mariam Simeon) pertransibit gladius.

Vers. Regina Martyrum ora pro nobis.

Resp. Quæ justa Crucem Jesu constitisti.

OREMUS.

Deus, in cujus passione secundum Simeonis prophetiam dulcissimam animam gloriosæ Virginis et Matris Mariæ doloris gladius pertransibit: concede propitius, ut, qui dolores ejus venerando recolimus, passionis tuæ effectum felicem consequamur. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.

ORI BERA EUZKERAZ:

Ant. Zure-zure anima igaroko dizu ezpatak, esaten dio Maria'ri Simeon'ek.

Vers. Gutzaz eskatu, Martirien Erregiña.

Resp. Jesus'en Gurutze ondoan iraun zenuan orrek.

OTOITZA.

Simeon'ek aurretik ayazo zuanez, oñazeko ezpatak igaro zuan zorionezko Birjin eta Ama Maria'ren anima eztitsu-etzitsua, Zure Nekaldian, o Jainkoa, gurtuaz, arren oñazeak oroitzen ditugunezkeroz, Zure Nekaldiko ondoren zoriontsua iguzu, arren. Beti bizi eta agintzen dezun orrek. Alabiz.

BIGARREN EGUNERAKO OTOITZA.

Damuzko eta eguneroko otoitzak, 36'garren orrian.

Lezo'ko Gurutze Dioitsua! Ezertarako gauz ez naizala ezagututa, apal-apal aitortu dizut lenengo egunean nere txikitasuna; orain, bigarren egunean, aitortzen dizkitzut barren-barrendik nere bizi guztiko oker, gaiztakeri eta utsegiteak; eta Zure aurre doitsu-doitsuan izututa eta lotsez beteta, biotzeko miñik aundienaz esaten dizut: Jesus errukitsua! Iñundik eta iñolaz, Zu nitzaz kupitzeko biderik ez detela ba-dakit; orretxegatik, gaur eskatzen dizudan ontartea, bakar-bakarrik Zure errukiak emango didalako uste osoa det.

(Pixka bat gogartetu.)

Asmo ona: Apaltasunezko egi ori askotan berritu.

Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian eta gañerakoak lenbiziko egunean bezela.

IRUGARREN EGUNERAKO

Damuzko eta eguneroko otoitzak 36'garren orrian.

Gurutzean jositako Jesus! nere pekatuak izandu dira egizko arantz, iltze eta lantza Zure gor-

putzari Zauri oek irikitzeko, eta Zure biotza miñezko urez asetzeko; eta damututa datozen pekatariantzako, errukizko eta bizitzazko iturri biur-tzen dira zauri oek; gaiztoak ondu eta Jainkoaren seme egiten dituan damu orretzaz zaletuta, eskatzen dizut, Zure aukeratuai ematen dizkietzun doayaz laguntzeko, eta bereziki nere pekatuen egizko damuaz.

(Gogartetu.)

Asmo ona: Ongi konpesatzea, edo konpesiyoak berritzea, bear izanezkero.

Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta gañerakoak lenbiziko egunean bezela.

LAUGARREN EGUNERAKO

Damuzko eta eguneroko otoitzak 36'garren orrian.

Jesus on-ona! Zure izenean eskatutako guztia betiko Aitak eman dezaigun, onen-onena da Zureganatu eta Zurekin bateratzea; orregatik egun ontan, sinismenezko iltze doitsu batez bezela Zure erakutsietara nere adimena josi nai det; Zuk erabakirik dauzkatzun eñan atsegin eta atsekabeak, oraingo eta geroko zorionak, eta gauz guziak onez eta pozez artu ditzadan.

(Gogartetu.)

Asmo ona: Sinismenezko eta etsipenezko egin-tzetan alegindu.

Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta gañerakoak lenbiziko egunean bezela.

BOSGARREN EGUNERAKO

Damuzko eta eguneroko otoitzak, 36'garren orrian.

Jesus bigun-biguña! Zuganako sinismenak bateratzen ditu gure adimenak Zurearekin; eta Zuk egin dituzun errukizko lanak eta eskaintzen dituzun agin-sariak itxaropen atsegin bat sortu eta bizkortzen dute. Zure adizkidetasunean aurreratu nayeon, eskatzen dizut, Gurutze doitsu onetsia, Zugandik jatxitzen diran urrikaltasunen oroimenaz nere anima bazkatzeko, eta nai dedan ontartea iritxiko dutelako uste osoz indartzeko.

(Gogartetu.)

Asmo ona: Lezo'ko Gurutze doitsuak egin dituan gauz arrigarriak gogoratu, eta itxaropen aundi bat artu.

Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta gañerakoak lenbiziko egunean bezela.

SEIGARREN EGUNERAKO

Damuzko eta egunoroko otoitzak 36'garren orrian.

Gurutzeko Jesus maitetsu-maitetsua! Diguzun maitetasun aundiak eraman zaitu Gurutze ortara, Zure ongiñai doitsu ortan sututa, ugari-ugari ar dezagun gurutzetik iritxi dizkigutzun on eta irabazietatik. Jesus on-ona! Lurrera ekarri zenduan su ori iguzu, Zure biotzarekin batera gureak ere berotu eta urtu, eta errazago bederatziurren ontan eskatzen deguna iritxi dezagun.

(Gogartetu).

Asmo ona: Maiz-maiz gure Jaun Jesukristo' renganako maitetasuna berritzea.

Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta gañerakoak lenbiziko egunean bezela.

ZAZPIGARREN EGUNERAKO

Damuzko eta eguneroko otoitzak 36'garren orrian.

Gure Jabe eta Jaun, gurutzetik zintzilik zauden Jesus! Bederatziurren ontan egiten dizugun eskaria ezdugu bestetarako nai, Zu obeto gurtu eta

maitatzeko baizik; ortarako utsetik atera eta berterosi ninduzulako, eta ortarako gaurko laguntza ematen didazulako. Ez aberaskerien argiak, ez aundikerien aizeak, ezta bizitz ontako atsegiñak ere, gutxiago berriz eskatzen dizudan ontarteak, iñoiz ere, ez nazatela Zure bide zuzenetik aldatu, indazu arren.

(*Gogartetu*).

Asmo ona: Askotan gogoratu, naikunde zuzena okertzen bada, ortik datozen egite guziak, okerrak izango dirala.

Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta gañerakoak lenbiziko egunean bezela.

ZORTZIGARREN EGUNERAKO

Damuzko eta eguneroko otoitzak 36'garren orrian.

Egiten diguzun ontarteaz, asmo okerretik itzultzeaz gañera Zure naikunde doitsu-doitsuetara zuzentzea nai degu. Orregatik eskatzen dizugu, eman zaiguzula doai ori Zure goraldi geyagorako, eta gure animen onerako; Zuk zer nai dezun ezagututa, naimen doitsu ori obeto egin dezagun eta batez ere gaur.

(*Gogartetu*.)

Asmo ona: Egikuntza guziak Jainkoaren ize-
nean egin.

*Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta
gañerakoak lenbiziko egunean bezela.*

AZKENEKO EGUNERAKO

*Damuzko eta eguneroko otoitzak 36'garren
orrian.*

Gure Erosle Jesus! Edozein aldetara gertatzen
zaizkigula, egiten dizkitzugun eskari abek, ongi
sinistuta gaude, Zure gurasozko biotzak, egizko
gure zorionera zuzenduko dituala. Orregatik nere
biotz-barreneko esker onak eskaintzen dizkitzut,
eta iraupen geyago izan dezaten, egunero, aste-
oro edo urtean zenbait aldietan berrituko ditut,
one!ako edo alako zerbait gauz egiñaz; nere asmo,
nere itz, egikera eta almen guztiakin Zu goratze-
ko, eta gero Zurekin beti bizitzeko.

(Gogartetu).

Asmo ona: nolaz au egin bear detan garbi-
garbi izendatu.

*Eguneroko azken-otoitza 37'garren orrian, eta
gañerakoak lenbiziko egunean bezela.*

Lezo'ko Gurutze Santuari.

(KANTARTEA.)

*Goazen Lezo'ra, goazen,
Jesus ikustera,
bere aurrean pozez
belaunikatzera.*

Lezo'n dagoen gurutze deuna
antziñatik miraria,
beartsuari laguntzen daki
egiñaz bere eskaria;
bere oñetan alaitutzen da
askotan pekataria,
arrantzale ta nekazarien
argi eta gidaria.

Estuasun guzitan
da zure bearra,
zuri egiten zaizu
pozez ñeadarra;
zuk dakizu txukatzen
barrengo negarra,
ta biotzera sortzen
sinismen-indarra.


Zure laguntza aundiak gudan
dituzu beti banatzen,
gurutzetikan pekatariaz
zeradelako kupitzen;
argatik beti euzkeldun denok
zuregana gera biltzen,
eta zaitugu pozaren pozez
biotzetikan maitatzen.

Zuregan bildutzen da
mintsu ta eria,
aberats ta beartsu,
aundi ta txikia;
orain arte bezela
Kristo maitatia,
izan ezazu gutzaz
beti errukia.

A. M. D. G.

ARĶIBIDEA

	<u>Orria</u>
Itz-aurrea	1
LENENGO BURUA.	
Gurutzea ta gurutziltzetuaren jatorria	5
BIGARREN BURUA.	
Lezo'ko gurutzearen jatorria	9
IRUGARREN BURUA.	
Lezo'ko gurutze deunak bere zalezkoea (debotoen) aldez egin dituan arrigarrizko egiketak	14
LAUGARREN BURUA.	
Lezo'ko gurutze Deunak gure itxasgizonai beti lagundu die	21
BOSGARREN BURUA.	
Euzkeldun erriak Lezo'ko gurutzeari beti izan dien zaletasun eta oneraspena	27
ERASKIÑA.	
Lezo'ko gurutze Deunaren izenean egiten dan Bederatziurrena	33





Beneditarre

12°